

Aurreko Asteko Bilkuraren laburpena

Aurreko asteazkenean, urtarrilaren 31n, 2024ko lehen osoko bilkura egin zen, eta batez ere aurtengo aurrekontuak jorratu ziren. Denok dakigu Udalaren egoera ekonomikoa prekariora dela, oraindik ere pairatzen ditugulako EAJk duela legegintzaldi batzuk utzitako zor kontrolatugabearen ondorioak. Horregatik, aurrekontuak ia-ia ez dute inbertsiorako gaitasunik, eta esan dezakegu aurreko legegintzaldiaren jarraipena direla.

Osoko bilkuraren hasieran, EH Bilduk gobernu taldeari gogorarazi zion aurrekontuei buruz aurkeztutako dokumentazioa osatu gabea zela eta ez zuela Foru Arauan ezarritakoa betetzen. Hala ere, EH Bilduk ez zuen nahi hori oztopo bihur zedin aurrekontuak onesteko, ezinbestekoak baitira udalerraren funtzionamendurako.

Laguntzeko eta ekarpenak egiteko asmoz, EH Bilduk 8 zuzenketa aurkeztu zizkien aurrekontuei, behar bezala aztertuak eta justifikatuak, aurreko legegintzaldietako esperientzian oinarrituak, eta guztiz beharrezkoak, hala nola zuhaitz gehiago erostea, zenbait bidetan zoladura jartzea edo Gazteen Kontseilua sortzea. Zuzenketa horiek aurrekontu osoaren ehuneko oso txikia ziren, baina EAJk kontrako botoa eman, eta guztiak atzera bota zituen. Guztiak!

Amaieran, galde-eskeen txandan, EH Bilduk Mugikortasun Mahaia sortzea eskatu zuen, zenbait gai eztabaidatu ahal izateko: batetik, herrigune historikoko trafikoa arautuko duen ordenantza, eta, bestetik, ikastetxearen eta plazaren artean irabazitako oinezkoentzako gunea berriro irekitzeko ideia. Alkateak eskaera horri ezetza eman zion, eta bere erantzunak tentsioa eta gaitzespena eragin zituen bertaratutakoaren artean. Inolako iradokizunik jasotzeko aukerarik eman gabe, alkateak harrokeriaz eta larderiez adierazi zuen erabakia hartuta dagoela, eta kito!

Beraz, nahiko bilkura desatsegina izan zen eta EH Bilduren proposamenak sistematikoki baztertu ziren. Justifikaziorik gabeko ezezkoa nagusituko da bilkura guztietan? Sistematikoki

baztertzen dituen eta erabakiak herritarrak kontuan hartu gabe hartzen dituen jarduera-moduak eredu batera garamatza?

Gobernu taldeari gogorazten diogu oposiziotik lanean jarraituko dugula, Urduña hobe dadin proposatuz eta lagunduz. Horrela ulertzen dugulako tokiko politika. Azken batean, gu ere herriarren zati garrantzitsu baten ordezkari gara.

El pasado miércoles 31 de enero se celebró el primer pleno del 2024, donde se abordaron principalmente los presupuestos para este año. Por todas es sabido que la situación económica del Ayuntamiento es precaria debido a que se siguen arrastrando las consecuencias de la descontrolada deuda que dejó el PNV hace varias legislaturas. Por ello, los presupuestos apenas tienen capacidad para nuevas inversiones y las que hay, son una continuidad de la legislatura anterior.

Al comienzo del pleno, EH Bildu le recordó al equipo de gobierno que la documentación presentada sobre los presupuestos era incompleta y no cumplía con lo establecido en la Norma Foral. A pesar de ello, EH Bildu no quiso que esto supusiera un impedimento para aprobarlos, ya que estos son imprescindibles para el funcionamiento del municipio.

Con el ánimo de colaborar y de aportar, EH Bildu presentó 8 enmiendas a los presupuestos, perfectamente estudiadas, justificadas, basadas en la experiencia de las pasadas legislaturas y totalmente necesarias, como puede ser la compra de más árboles, la pavimentación de caminos, la creación del Gazteriaren Kontseilua (Consejo de la Juventud) o las ayudas para que el comercio local haga inversiones en sus escaparates. Suponían un porcentaje muy bajo sobre el total del presupuesto. Sin embargo, todas ellas fueron rechazadas con el voto en contra del PNV. ¡Todas!

La sesión concluyó con el turno de ruegos y preguntas, donde EH Bildu solicitó al PNV la creación de una Mesa de Movilidad, en la que poder debatir la Ordenanza que regulará el tráfico en el Casco Histórico, así como la idea de reabrir la zona peatonal ganada entre el colegio y la plaza. El alcalde denegó esta petición, lo cual generó tensión y reproches entre el público asistente y sin dar opción a recibir ningún tipo de sugerencia indicó, de forma prepotente, que “¡la

decisión está tomada por el equipo de gobierno que ganó las elecciones, y punto!”

Fue, por tanto, un pleno bastante desagradable, en el que se rechazaron de forma sistemática las propuestas de EH Bildu. La posibilidad de un modo de actuación basado en el rechazo sistemático a las propuestas de EH Bildu y el tomar las decisiones sin tener en cuenta a la ciudadanía nos lleva a un modelo donde ¿Prevalecerá la negativa sin justificación? ¿Gobernaran de forma unilateral?

Le recordamos al equipo de gobierno que, desde la oposición, vamos a seguir trabajando, proponiendo y colaborando para que Orduña mejore. Así es como entendemos la política local. Al fin y al cabo, nosotros también representamos a una parte importante de la ciudadanía.